

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 24an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudion erroldatutako biztanleek 2022/2023 ikasturtean, 2022ko urriaren 3tik 2023ko ekainaren 30era egindako euskarazko ikasketak diruz laguntzeko deialdia

BDNS (Identif.): 678528

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/678528>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, deialdian azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

Bigarrena. Helburua

Laudio Udalak Hizkuntza Normalizazioa eta Identitatea Zerbitzuaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako araubidean ematen dituen dirulaguntzen esleipena arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudio Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAOean (28. zenbakia).

Laugarrena. Zenbatekoa

2022/2023 ikasturteko eskaeratarako, 34.000 euro.

Bestetik, balizko erreklamazioei aurre egiteko 1.000 euroko kopurua erreserbatuko da, laguntza multzo bakoitzari dagokion diru atala ahituko balitz, baliagarri izateko.

Edozein modutan ere, urte natural berean eskatzaile batek jasotako euskara beken batuketak ezingo du 1.000 euroko muga gainditu.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2023ko uztailaren 17an amaitu.

Laudio, 2023ko otsailaren 24a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE